

AXULAR

edo lurraren kantua

Oletako gainetan Larrun zolaraino
Zoin ardura nindoan larrez larre kantuz,
Bihotza hegal eta behakoa lano,
Amets-lur zabal hortan gogoalataz !

Etxe kaxko apalen, haitzen eta gainen
Gozoari begira eta hurrupaka,
Oletako xokorat noiz ote naiz, ganen
Patarrez patar eta erreka erreka ?

Ez ote naiz gehiago arrats apalean
Larrunak xoraturik haitz pean jarriko ?
Gaineri amets-kea doakotenean
Ez ote zait gehiago arima urtuko ?

Atseginez urtua, gozoz lanotua,
Erdi lo, erdi zoro, iratzen artean,
Noiz ote dut entzunen Lurraren kantua,
Gauak azken lillurak zeruan histean... ?

... ..
... ..

Oi orduan da gozo Larrungo pe hoitan
Eskual-lurrari soinu eta amets-kantuz
Petik darionean arima airetan,
Azken arrotz-uratsak urruntzen adituz...

Orduan... ilargia gorri den gauetan,
Gaupean ixildurik Sarako ezquila,
Aize-sistuka eta gaineri herrestan
Axularren itzala larretan dabila.

Hantxet Eskual-Arima atxeman orduko,
Zelaiez-zelai eta erreka erreka
Biak gauez-gau arin, mendiak lekuko,
Zirimolan doatzi elgarri besarka,

IRATZEDER

Zirimolan, airean eta zirurika
Bira-bira doatzi amodio-irriz
Iratzeri fereka, gaineri musuka,
Oteak harrotuz ta haitzak daldaraziz.

Zirimol-errabian, zorion-auhenez,
Etxez-etxe gau-dantzan lerratuz dabiltza ;
Aitasok xutiturik, « Aitaren » eginez,
Su ondotik diola : Haurrak has otoitza.

Izarrak su-pindarka, haitz eta errekak
Atsegin marrumaka, gain guzietarik
Arbasoen gogoak, zintzurtzat harrokak,
Tanpez irrintzinaka dauzkiotelarik,

Su-zirimolan eta inguruz-inguru
Larrungo buruari sutan doazkote
Airez-aire gateko eta zeruz-zeru,
Zirimiromirolan Jainkoratu arte...

*

* * *

Otoi, Axular, Eskual-Herrien betiereko Apeza,
Galerna haizez, izar-su beroz sugar zadazu bihotza,
Gaupetik entzun zure gogoaz goraki nadin gaur mintza.

Hedoietarik gorago gauaz adituz zure izena,
Hezurak gozoz urtuak dago amets-nigarrez Larruna,
Ez baitu segur ahanztekoa zoin maiz zitzaizkon igana.

Argia gabe Jainko odola bihotzeratu ondoan,
Oihanpeaz eta larreri goiti barnea sutan zindoan,
Beha ta beha baitzinauden han Larrungo mendi kaxkoan.

Iduzkipean handik ikusiz Eskualdun etxe xuriak,
Itsasoaren urdin zabala, pentzeak eta mendiak,
Gozen gozoz lilluratuak bazagozkitzun begiak.

Lilluratuak bai eta laster bihotzmin lanbroz beteak
Oroituz peko zelai, itsaso eder hoitako semeak
Zoin jakitatez gabeak diren eta lurkeriz goseak.

AXULAR EDO LURRAREN KANTUA

« Eskual-Herriak egin ditutzun zeruetako Jainkoa,
Entzun zazu ba nere egungo apez-deiadar beroa :
Zabaldu gabe ez utz hiltzerat Eskual-Arima gaixoa.

« Urrikal ziten, ene otoitzak zutaraino joan ditzala
Suz, fedez, gozoz gaindika bete Eskual-bihotzen zabala
Eta Herri hauk busti dituen Kristo Jaunaren odola.

« Oroit Lur hunen zutaratzeko apez nauzula hautatu.
Oi, zuri esker, goi jakitatez eta iduzkiz sugartu
Asmu berriak Eskual-mintzoan nik sartzen ahal banitu !

« Bai Jauna, onhar Eskual-Arimak egiten dautzun oihua
Menderen mende zerurat zabal, Eskuarak garbi zaindua,
Jaun goikoraino helaraz dezan, Eskual-Lurraren kantua. »

.....

Aize burrunba, ortzi karraska, Larrungo gaina su-pindar...
Eta hedoién artetik jauntsiz itzultzen zinen, Axular,
Bihotz gogoak Jainkoz beterik, dena su, amets eta kar.

Gaua orduko bazaudelarik xirola-sistuz artzainak,
Ostatuetan kantu-orroaz *rau-de-rau* itsas-gizonak,
Supazterretan boz-daldaraka amatxi gazte izanak,

Zuk belauniko, lantuz Eskuara, zabalduz Eskual-gogoa,
Burua sutan moldatu duzu, Axular apez beroa,
Hil-hurren ziren Eskual-Herrien betiereko Geroa.

.....

Saran dugu, Axular, zure hil-erautsa,
Bihotz barnean aldiz zuk piztu Ametsa,
Zu lagun mendez mende
Eskualdun baikaude

Oi Axular !

Gora Eskual-Gogoa, Gora Jaun Goikoa !
Gora Gora Eskuara, gurea Geroa !

Huna mende berriak argitzen zaizkola
Eta Eskual-Gogoa herrestan dabila,
Orai beharko baitu
Hil edo gaztetu
Oi Axular !...

IRATZEDER

Hasi duzun lanari bihotz osoz lotuz,
Gu ere aiko gare, pertsuz eta kantuz,
Eskualdunen bihotzen
Eskuaraz zabaltzen
Oi Axular !...

Suz eta zeruz Eskuara apainduko dugu
Nausi xutitu- eta egin dezan oihu :
Doala ba erdara
Herritik kanpora !
Oi Axular !...

Kantuz jinen gitzaitzu Eskualdun anaiak
Ikasle, laborari eta apezgaiak
Eskual-Gogoa sutan
Altxatuz airetan
Oi Axular !...

Denak soinu, orduan berpiztuko zare,
Iduzkia soineko, Larruna aldare,
Eskual-Lurra betiko
Jaun Goikoratzeko
Oi Axular !
Gora Eskual-Gogoa, gora Jaun Goikoa
Gora gora Eskuara, gurea Geroa !

IRATZEDER

15-6-43.

Del libro ZERU MENDITIK, pág. 34.
Transcripción autorizada y revisada por el autor.